


Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



GOIZUETA UMORE ONA

Ibilian, kantari

Ikasturte bukaerako kontzertu ibiltaria emanen du gaur Umorre Onak. Aurrena elizan kantatuko du abesbatzak, 11:30etan, jaunartzeak direla-eta. Hamaitetako izanen da gero plazan, eta kalez kale ibiliko dira, bazkaritara arte. ||

HERNANI MENDEKOSTE JAIK

Azken traka, danborren burrunbarekin

Ostiralean hasitako festak gaur bukatuko dira Florida-Etxeberrin, Mendekoste jaietako azken eguna baita. Haurren danborrada aterako da 11:00etan. Sagardo dastaketa eta txaranga ere izango dira.

BUKATZEKO ordu batzuk besterik ez dituzte falta Florida-Etxeberrin auzoko Mendekoste jaiak, baina bada oraindik, zerekin gozatu.

Atzoko festa giroari jarraipena emango diote gaur, has-teko, gaztetxoek, 11:00etan danborradan aterata. Ordu berean, meza nagusia ere izango da, hildakoen omenez. Ondoren, 12:30etan hasita, sagardo dastaketa egingo da, txaranga girotuta, eta 13:00ean festetako errifaren zozketa.

Atzo, berriz, giro ezin hobean ibili ziren haur, gazte, heldu eta jubilatuek, eguraldiak lagunduta. Sagardo Bowl txapelketa berrian, adibidez, 26 taldetik gora aritu ziren, eta bingoan, auzo osoa elkartuta!

Festak bukatzeko azken traka eguerdiko 14:30etan botako da. ||



Apar festan blai, festa giroan murgildu ez zenik ez zen izan atzo.

Argazkiak:



HERNANI HERRI GUNEA

Jantoki beganoa gaur, zabalik

«Bertako eta garaiko elikagai ekologikoekin osatutako platerak, beganoak, izango dira gaur aukeran, Urumea Herri Gunean, «kontsumo era kontzientea ardatz». Jantokia 20:30etatik 21:30etara irekiko da; haurrentzat, 19:30etan. ||

Gona tailerra, San Joanetarako

Koadrilen egunerako 'Jantzi Gona' ekimena jarri da martxan; Maite Larburu musikari hernaniarraren izen bereko kantua oinarri hartuta, denak gonak jantzita kalera ateratzeko deialdia. Gona tailerra ere antolatuta da, ekainaren 12an, 18:30etan Urumea Herri Gunean. ||

HERNANI ERRUGBIA

Garagardo azokak gaur, azken eguna

Gaur itxiko ditu ateak Errugbi Elkartek antolatutako Garagardo Azokak, Atsegindegin. Egun osoan izango da jan-edana. ||

HERNANI SUTU JAIK

Koadrilen eguneko txartelak, salgai

Urtero bezala, bazkaria antolatu du Sutu Jaiak San Joanetan, koadrilen egunerako; hilaren 25erako. Bazkari txartelak salgai daude tabernetan. ||

HERNANI XALAPARTA

Azken eguna, izena emateko

Ekainaren 15ean egingo du Xalaparta elkarteak bazkideen urteko bazkaria, eta gaurkoa da izena emateko azken eguna. Aitor Gorrotxategi pelotaria omenduko dute bertan. ||

HERNANI ELIZA

Inkesta, Elizaren inguruko iritzia jasotzeko

Eliztarrei eta fededunak ez direnei galdera egin nahi izan die Hernaniko elizak, elizaren inguruan duten iritzia jasotzeko. Etxeetan banatu dituzte inkestak, eta ekainaren 23ra arte erantzun daitezke.

HERRITARREN iritzia berri jakin nahi du Hernaniko Elizak, eta inkesta zabaltu du horretarako, herritar guztien artean. «Fededun izan ala ez, gazte edo heldu izan, zure erantzunak aberastuko du gure Proiektua», azaldu du inkestan bertan.

Inkesta, etxera

Hiru ataletan banatutako 12

galdera egin ditu Elizak, atal bakoitzeko launa; 'Bidean', 'Konbertsio Bidean' eta 'Etorkizunera Bidean' ataletan galde-tzen da egun Elizaren inguruan zein iritzi dagoen eta etorkizuneari nolako behar lukeen. Etxeetara bidali du inkesta.

Herritar guztiak animatu ditu erantzuna ematera; ekainaren 23ra arte jasoko dira, Parrokietako postontzietan:

San Joan Bataiatzailean, Floridako San Jose Langilean, Zinkoeneako Agustinetan, Ereñotzuko San Antonion, edota Izpizua 3ko bulegoan.

Etorkizunera begira

Galdeketa Elizak onartzen du «historian, gizartean eta kulturatan izan diren aldaketek mugiarazi» egin dutela «Ebanjelioari eta gure herriari leia-

lagoak izateko bide berriak bilatzeko». Hain zuzen, horretarako jarri du martxan inkesta.

«Eliztarrei eta herritar guztiei beren iritzia ezagutzeko» zuzendu die inkesta. Horrela, jakin nahi da «non eta nola ikusten dituzten parrokietako kristau elkarteak, eta norantz eta zein pauso emanez aldatu beharko luketen». ||

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, CULTURA Y DEPORTE DEPARTAMENTO DE EDUCACION, CULTURA Y DEPORTE

CEPA Hernani HHI

Helduen hezkuntza

Ekainean MATRIKULA ZABALIK 2019/20 ikasturterako

- DBH-ko TITULUA lortu
- Zure ikasketak jarraitu
- Hizkuntzak: ingelesa, euskara
- Heziketa zikloetarako sarbide frogen preparazioa
- Atzeritarrentzako gaztelera eta euskara

Antziola 62, Hernani 943 33 53 18

Gaur urte 1

Zorionak Oroitz!

KRONIKAK INPRIMATZEKO LANGILEA BEHAR DA, UDARAKO ORDEZKAPENA EGITEKO

Bidali zure Curriculum Vitae-a, ekainaren 21era arte:

kronika@kronika.eus
Dobera Euskararen Elkarteak Larramendi 11 beheak 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:
- Kobxeke karneta eta kobxea izatea
- Iniziatiba eta enpatia
EZ DA ESPERIENTZIARIK BEHAR

Kronika DOBERA



GAUR

Zeru nahiko lainotuta egongo da, eta zirimiria egin dezake tarteka. Iparaldeko haizea ibiliko da, eta tenperatura jaitsi egingo da. **Min.13° / Max.18°**



BIHAR

Lainoak eta urdungeak tartekatuko dira, baina ez du ia euririk egingo. Dena den, egunaren bukaeran euritara joko du. Iparaldeko haizea ibiliko da. **Min.12° / Max.17°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Odrizola URNIETA** Idiazabal, 18 **943 334014** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ASTIGARRAGA AZSTIGAZTE



Ahozko defentsa egin ondoren eman zitoten saria, Eñaut Doxandabaratzek.

Bigarrenez saria, Doxandabaratzek

Azstigazte lehiaketa irabazi du berriro Eñaut Doxandabaratzek, 14 urte artekoen mailan. Bigarren lehiaketa azaroaren 13ra arte dago irekita.

OSTIRALEAN banatu zituzten Azstigazte lehiaketako sariak, Udalean. Oraingoan, 'Sendia' zen aurkeztu beharreko lanetarako gaia.

Parte hartzaileek aurkezpen eskutitza eta lan idatziaz gain, irudi bat ere aurkeztu behar zuten, eta azkenik, ahazko defentsa egin. Bi finalista iritsi ziren ahazko defen-

tsara: Ozlordo eta Ryhnex ezizenak erabili zituztenak, baina Ryhnex bakarrik aurkeztu zen, azkenean. Lanak ondo eginda, hala ere, ondo merezita jaso zuen saria, 14 urte artekoen kategorian: Eñaut Doxandabaratz ezkutitzen zen ezizen horren atzean. Lehengo urtean ere aurreneko saria jaso zuen.

Hurrengo lanak, Murgiako Jauregiari buruz
Aurreneko lehiaketa bukatuta, bigarrenean parte hartzeko aukera dago orain. Bi kategoria daude; 12-14 urtekoena eta 15-18 urte artekoena, eta gaia, 'Murgiako Jauregia' izango da. Lanak, azaroaren 13ra arte aurkeztu daitezke. Oinarriak: www.astigarraga.eus. ||



Hiru hernaniarrak, Ipar Martxako Espainiako Rankingeako dominekin.

HERNANI IPAR MARTXA
Hirutik hiru domina hernaniarrek, Espainiako Rankinge
Aurreko asteburuan Valladoliden egin zen Espainiako Ipar Martxako Rankinge lasterketa berri bat, eta bertan izan ziren hiru hernaniar, Club Vasco de Camping taldearekin lehiatzeko. Ederki aritu ziren, gainera, bakoitza bere kategorian, hirurak igo baitziren podiumera; Arantza Astigarraga eta Agustin Urretabizkaiak hirugarren egin zuten, eta Alberto Arenalesek bigarren. ||

ARALAR TABERNA

XXXV. MUS TXAPELKETA ZORTZIRENAK

EKAINAK astelehena 10

MANOLO - JESUS / NICO - PASTE
TXEMA - MAGGI / ANTONIO - PINA
AGURTZANE - ANDER / MATHIUS - ANER
JONAN - ZURU / ANDER - ARKAITZ

EKAINAK asteartea 11

JOXE LUIS - JON / BIXENTE - JOXE
MIKEL - POTTUNE / JOXE RAMON - PACO
JONKAR - JOSEBA / TXEMA - PLATANITO
AXIER - KOLDO / JOXE - KUJE

GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

AROZA TABERNA

MUSIKA ZUZENEAN

EKAINAK 15
19:30etan

Txantilla 4 (Hernani) 943629376

HERNANI BILGUNE FEMINISTA

Autodefentsa feminista tailerra, festen aurretik

Larunbat goizean emango da, goizez. Izena emateko: 'hernanikotxokofeminista@gmail.com'.

SAN Joan jaien aurretik, autodefentsa feminista tailerra antolatu nahi izan du Hernaniko Bilgune Feministak. «Eraso sexistak eta matxistak etengabe eta gure egunerokoa jasaten ditugu, eta jaiak ez dira horren salbuespen. Izan ere, jaiak gizarte baten anto-

laketa eta balioak islatzen dituzte», azaldu dute.

Festak hasi aurretik, beraz, ekainaren 15ean, tailerra emango da Biterin, 09:30etatik 13:00etara. Irekia eta doan da, baina izena eman behar da emailaz: hernanikotxokofeminista@gmail.com. ||

EREÑOTZU FESTAK

Azken eguna, txartelak erosteko

San Antonio jaien barruan, herri afaria egingo da datorren ostiralean, hilak 14, 21:00etan frontoian, eta txartelak erosteko azken eguna da gaurkoa. Irrintzi tabernan daude salgai. ||

Eskola Txikiak bat eginda, Aginagan

Gipuzkoako Eskola Txikien festa izango da gaur Aginagan, eta bertan izango dira Ereñotzuko Txirrita eskolakoak ere. Goizeko 10:00etan hasita, jolasak, tailerrak, ikuskizunak, apar festa, bazkaria... izango dira. ||

HERNANI KANTAITA

Kantaitarako beste entsaio bat, etxi

Asteartean egingo da berriro, San Joan egunaren bezperan Kantaitan parte hartu nahi dutenekin entsaioa. Plazan izango da, 20:30etan. ||

HERNANI KIROLDEGIA

Uztaila eta abuztuan ere, ikastaroak

Haur, gazte eta helduei begira hainbat ikastaro antolatu ditu kiroldegia, uztaila eta abuzturako: igerileku itxi eta irekietan, Ave Maria parkean, fitness aretoan... Uztaileko ikastaroetarako izen-ematea hil honen 17ra arte dago irekita; abuzturako, uztailaren 23ra arte. ||

HERNANI EH BILDU

Bileratan EH Bildu, udal taldeekin

«Udal hauteskundeetako emaitzak aintzat hartuta» udalbatzarrean ordezkariak lortu duten beste hiru alderdiekin elkarrizketa errondan ari da EH Bildu. EAJ-PNV eta PSErekin bildu da, eta asteartean Elkarrekin Podemos-Orain Hernanirekin bilduko da. Laister egingo du balorazioa. ||

IRAGARKI MERKEAK

Aseguruen munduan lan egin nahi duzu? Bidali zure C.V.a: cascoco@mapfre.com helbide elektronikora.

Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten eta garbitasunean. Orduetgia: 11:30-17:00. Deitu: 654 122 548

Galizian villa bat alokagai uztaila eta abuztuan. Deitu: 688 605 452

Almazena salgai Hernaniko Lizeaga auzoan (Peña Otaño atzean). 40 m², 4 m altuera, entreplanta, trastelekua eta bulegoa jarrita. WC ere bai. Deitu: 680 136 066

Lokala alokairuan, 1go pisuan. 17m karratukoa, eta komunarekin. Ofizina baterako egokia. Deitu: 943 27 78 51

Erioxako Alesanko herrian apartamentu bat salgai: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna, dena kanpoaldean eta altzariekin. Deitu: 676 402 750

Hernaniko Etxeberri auzoan uztaile arte martxan dagoen eta harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da jubilazioa dela eta. Interesatuek Deitu: 689 290 923

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilerro eta formazioa enpresaren kontu. Bidali cv info@landanet.net edo deitu 943318606.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)